



## KOSTU EGITURA

Gure enpresa hainbat gastu edukiko ditu. Esate baterako, finkoak, aldakorrak... Gastu finkoak izango ditugu, hauek izango dira beti edukiko ditugun gastuak eta horren kostua mantenduko duena. Honekin batera, proiektua aurrera eramateko gai gara eta horrek darraken gastuei aurre egiteko gai gara.

Gure gastu finkoak honakoak izango dira: zergak, alokairua, aseguruak, webgunearen disenatzaileen soldata, domeinuaren kostua, enpresa sortzaileen soldatak, makinak eta horren mantenimendua eta fabriken langileen soldatak. Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren arabera, makina bakoitzeko kostua 10.000 euro inguru da eta horien mantenimendu kostua (urteko) gutxi gorabehera 2.000 euro dira. Gainera, gure produktua sortzeko lokal bat alokatuko dugu Miranda de Ebron 197m<sup>2</sup> dituen. 1.500 euro hileko ordaindu beharko dugu.

Gure gastu aldakorrak hauek izango dira: gure produktua ontziratze behar dugun materialen kostua (Correo bidez eskuratuko ditugu kaxak dohainik ateratzen zaigu eta), beharko ditugun lehengaien kostua, garraiobidea (gure kasuan DHL) eta bestelako gastuak zein inflazioaren arabera aldatzen direnak. Kostu hauek aldakorrak direnez, denbora pasa ahala bere prezioa baxuagoa edo altuagoa izango da. Adibidez, DHL-en inbertitzen dugun kapital kopurua hilabetero aldatu daiteke bere arrazoiengatik (hala nola, antolamendu berriak, legeak...).

Eskala-ekonomiei dagokionez, ekoizpena handitzen den heinean unitateko kostua murrizteko aukera izango dugu. Adibidez, lehengaiak kantitate handiagoetan erosteak prezio merkeagoak lortzea ahalbidetuko digu, eta horrek errentagarritasuna handituko du.

Hedapen-ekonomikoetan, berriz, baliabide berak hainbat produktu edo zerbitzu eskaintzeko erabiliko ditugu. Horrela, azpiegitura, langile eta ezagutza berak aprobetxatuz, kostuak optimizatu eta eskaintza dibertsifikatzeko aukera izango dugu.

Kostu hauei aurre egiteko, enpresak diru-sarrerak sortuko ditu salmenten bidez, eta hasierako inbertsioa enpresa sortzaileen ekarpenekin eta, beharrezkoa bada, finantzaketa iturriekin (maileguak edo laguntzak) osatuko da. Diru-sarreren eta gastuen arteko oreka mantentzea izango da helburu nagusia, enpresaren iraunkortasuna lortzea mozkinen bidez eta hazkundera bermatzeko. Horretarako, gastuak ahalik eta gehien murriztea saiatuko gara. Adibidez, ontziratze materiala dohainik izango da.

## ➤ Ordainketa-orria (txantiloia)

Dokumentu honetan enpresaren urteko egoera ekonomikoa azaltzen da, kostuak, diru-sarrerak eta lortutako mozkinak kontuan hartuta. Alde batetik, kostuak bi multzotan banatzen dira: kostu finkoak eta kostu aldakorak.

Kostu finkoen artean daude urtean zehar aldaketarik izan ohi ez duten gastuak. Kasu honetan, zergak (5.000 €), alokairua (18.000 €), aseguria (21.900 €), makinak erosteko kostua (15.000 €) eta makinen mantenimendua (2.000 €) nabarmentzen dira. Beste kontzeptu batzuk, hala nola webgunearen diseinatzailea, domeinua edo sortzaileen soldatak, ez dira oraingoz kostu zehatzik izan. Guztira, kostu finkoak oso garrantzitsuak dira enpresaren egonkortasuna bermatzeko.

Bestalde, kostu aldakorak ekoizpenarekin zuzenean lotuta daude. Lehengaien kostua da atal honetan gastu nagusia: 500 unitate ekoizteko, unitateko 8,50 € ordainduta, guztira 4.250 € gastatzen dira. Horrez gain, inflazioaren ondorioz alda daitezkeen bestelako gastuak estaltzeko 2.000 € aurreikusi dira. Kostu aldakor guztiek ere enpresaren gastu orokorrari eragiten diote.

Kostu guztiak batuta, enpresaren urteko kostu osoa 68.150 €koa da.

Diru-sarrerei dagokienez, enpresak bi iturri nagusi ditu. Lehenengoa produktuen salmenta da: 500 unitate salduta eta unitateko 65,90 €ko prezioarekin, 32.950 € lortzen dira. Bigarren iturria jasotako diru-laguntzak dira, guztira 50.000 €koak. Horrela, urteko diru-sarrerak guztira 82.950 € dira.

Azkenik, diru-sarrerak eta kostuak alderatuta, enpresak 14.800 €ko mozkina lortzen du urtean. Datu horiek erakusten dute proiektua ekonomikoki bideragarria dela, eta etorkizunean hazteko aukera ona duela.